

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Zenbait zerga aldatzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa. Proiektu hori 2018ko irailaren 7ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## 1. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU/ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Hirugarren artikulua aldatzeko zuzenketa.

«Hirugarren artikulua. Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea.

2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izatekoa den indarrez, 17.1 artikuluko bigarren paragrafoak testu hau izanen du:

“Edonola ere, Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legearen 87. artikulua aplikatuz erreskaterako eskubidea galtzen denean aseguruaren hartzaileak onuradunaren izendapena errebokatzeko ahalmenari uko egiteagatik, aseguruak konputatuko da hartzailearen zerga-oinarrian, onuradunari zergaren sortzapenaren unean eskuratzea legokiokeen kapitalaren balioarekin.

Hartzailearen zerga-oinarrian balio bera konputatuko da, erreskaterako eskubiderik gabeko aseguruak direnean. Paragrafo honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko aldi baterako aseguru-kontratuei, baldin eta heriotza edo balioezintasun kasuetarako prestazioak edo arrisku kasuetarako beste berme osagarri batzuk baizik jasotzen ez badituzte, ez eta kontraasegururik gabeko biziarteko eta aldi baterako errentei ere”».

Zioak: Foru lege proiektuaren hirugarren artikulua Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 17.1 artikuluko bigarren paragrafoa aldatzen du.

Aipatutako 17.1 artikuluko lehen paragrafoak ezartzen duenez, ondarearen gaineko zergaren zerga-oinarrian “bizitza-aseguruak konputatuko dira zergaren sortzapenaren unean zuten erreskate-balioaren arabera”.

Abenduaren 27ko 16/2017 Foru Legeak 17.1 artikulua aldatu zuen, puntu hau argitzeko: beste pertsona bat izendatu bada bizitza-aseguruaren onuradun errebokaezin (eta, horren ondorioz, hartzaileak ez du erreskate eskubiderik izanen, Aseguru Kontratuari buruzko Legearen arabera) aseguruak konputatuko da hartzailearen zerga-oinarrian, onuradunari lortzea legokiokeen kapitalaren balioarekin.

Halere, agerian geratu da aipatutako 16/2017 Foru Legearen 17.1 artikulua aldatzean erregulaziotik kanpo gelditu direla beste kasu batzuk, aseguruaren onuradun errebokaezina aseguruaren hartzailea bera denekoak, bai eta erreskate eskubiderik ez dagoen beste kasu batzuk ere.

Hori dela eta, foru lege proiektuak azken ohar bat jasotzen du, zeinean ezartzen baita erreskatearen balio gisa halaber konputatuko direla, zergaren sortzapenaren unean, “biziraupeneko eta heriotza kasurako aldi baterako aseguruak, 50/1980 Legearen 98. artikuluan ezarritakoa aplikatuz erreskaterako eskubiderik ez dutenak.”

Aldaketa horrekin bilatzen zen Ondarearen gaineko Zergaren zergapetzea aurrezki-osagai bat izateaz gainera, ondare baten titulartasuna islatzen dutenak zergaren sortzapenaren unean; hau da, urte bakoitzaren abenduaren 31n. Hala eta guztiz ere, testu horrek bere literaltasunean pentsaraz lezake halaber zergapetzen zirela erreskaterako eskubiderik eduki ez eta aurrezki-osagai hori falta duten zenbait figura; esate baterako, soilik heriotza edo baliaezintasun kasuetarako prestazioak edo arrisku kasuetarako beste berme osagarri batzuk jasotzen dituzten aldi baterako aseguruak, bai eta kontraasegururik gabeko biziarteko eta aldi baterako errentak ere.

Hori dela eta, zuzenketak beste idazkera bat ematen dio Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 17.1 artikulua bigarren paragrafoari, honako alderdi hauek argitze aldera:

Lehena. Erreskaterako eskubiderik ez duten aseguruaren kasuan, aseguruak hartzailearen zerga-oinarrian konputatuko da, onuradunari zergaren sortzapenaren unean –hau da, urte bakoitzaren abenduaren 31n– lortzea legokiokeen kapitalaren balioarekin.

Bigarrena. Araubide honetatik salbuetsiko dira arrisku-aseguruko kontratuak; hau da, aurrezki-osagairik ez dutenak. Horien artean nabarmentzekoak dira aldi baterako aseguru-kontratuak, heriotza edo balioezintasun kasuetarako prestazioak edo arrisku kasuetarako beste berme osagarri batzuk soilik jasotzen dituztenean, bai eta kontraasegururik gabeko biziarteko eta aldi baterako errentak ere.